



914 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko urriaren hogeita hamarreen.

2009ko irailaren 30ean Udal Osoak Oiartzungo Udal Instalazioen Garbiketa zerbitzua LIMPIEZAS ETXEGAR, S.L. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikularekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin-betiko bermea ezar zezan eta plegu administratiboan 20. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezteko.

Aipatutako 135.4. artikularen 3. paragrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta hurrengo hamar egun baliodunetan behin-behinekoko esleipena behin-betiko deklaratu da, beti ere, esleipendunak seinalatutako dokumentazioa aurkeztu eta behin-betiko bermea ezarri badu.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espedientea bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, eta Udal Osoak 2009ko maiatzaren 13an behin-betiko esleipenekiko Alkatearengan egindako eskuordetzearen baitan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean LIMPIEZAS ETXEGAR, S.L. enpresak aurkeztu beharrekoak aurkeztu dituzenez, Oiartzungo Udal Instalazioen Garbiketa zerbitzuaren kontratua LIMPIEZAS ETXEGAR, S.L. enpresari behin-betiko esleitzea 301.050,89 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 4 urteko epearekin.

Ordainketa hurrengo partiden kontura egingo da:

1 102.227.121.00.01.2009, 1 103.211.122.00.01.2009, 1 502.227.449.00.01.2009, 1 602.227.422.11.01.2009, 1 604.227.421.00.01.2009, 1 801.227.451.11.02.2009, 1 803.227.451.31.06.2009, 1 903.210.444.00.01.2009, 1 1101.227.313.71.10.2009, 1 1102.227.452.00.01.2009

Bestalde, DISTRIVISUAL, S.L., GOIBER, S.L., GURBISA SERVICIOS AUXILIARES, S.L. eta LIMPIEZAS ETXEGAR, S.L. enpresei lizitazioan parte hartzeko jarritako behin-behingo bermeak itzuliko zaizkie.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

